MIGUEL SANZEK SOZIALISTEI LEHENTASUNA EMANEN DIELA BERRETSI DU CDN-KO BURUEKIN EGIN BILERAN

Alli: «CDNk egonkortasuna eman diezaioke Gobernuari eta PSNk, berriz, ez»

- Alliren idurikoz, UPN-CDN akordioa egonkorra izanen litzateke, oposizioa «zatiturik dagoelako»
- Haren ustez, «sozialistek alternatiba gisa agertzeko beharra eduki bezain pronto hautsiko lukete akordioa»
- CDNko buruaren hitzetan, «PSN ezin da gobernu aurrerakoi baten burua izan, jarrera frontista duelako»

Juan Kruz Lakasta / **Iruñea**

UPN-KO presidente Miguel Sanzek eta CDNko buru Juan Cruz Allik bilera egin zuten atzo Nafarroako Jauregian, Gobernua osatzeko aukerak aztertzeko. Topaketa UPNren eta PSNren artean Gobernua osatzeko negoziazioak dagoeneko abian daudela heldu da. Hala eta guztiz ere, Allik CDNrekin akordioa lortzearen alde apustu egitea galdegin zien atzo buru erregionalistei. Eskaera egiteko tenorean, egonkortasuna izan zen CDNko presidentearen argudio nagusia. Azaldu zuenez, PSN-PSOEk ezegonkortasuna eraginen luke Nafarroako Gobernuan, eta CDN, aldiz, egonkortasun bermea izanen litzateke.

Alliren hitzetan, «PSNk ez du egonkortasunik eskaintzen; izan ere, argi dago denborak aurrera egin ahala, hauteskunde orokorrak edo eta autonomikoak direla-eta bere burua alternatiba gisara aurkezteko interesa duelarik, PSNk akordioa hautsiko duela». Azken legegintzaldian gertaturikoa erabili zuen teoria horren oinarritzat: «Lehenik eta behin, hiruko Gobernua lehertarazi zuten, gero UPNri eman zioten sustengua Gobernua lor zezan, eta legegintzaldia amaitzeko urtebete geratzen zela UPN sustengurik gabe utzi zuen».

Alliren aburuz, CDNk joan den legegintzaldiaren amaieran UPNrekin aurrekontu hitzarmena eginez «egonkortasunerako bermea» dela erakutsi zuen. Nafarroako Legebiltzarrak 50 eserleku ditu, UPNk 22 parlamentario dauzka eta CDNk 3. Horrenbestez, UPNk eta CDNk bat egitekotan lehendakaria aukeratzeko sistema automatikoa erabili beharko lukete Gobernuaz jabetzeko. Tramite hori gainditu eta gero, Gobernu sendoa izanen litzatekeela uste du Allik. Izan ere, «PSNren diskurtsoa UPNrena baino nafarzaleagoa izan da, eta hori dela kausa oposizioa antagonikoa da, eta oso zatiturik dago».

Ildo beretik, Juan Cruz Allik esan zuen PSNren jarrera dela-eta «bideraezina» dela UPN baztertuz gobernu aurrerakoia osatzea. «Sozialistek alde batera utzi dute beren jarrera historiko aurrerakoia, irekia eta bateragarria, eta diskurtso frontista eta baztertzailea erabili dute. Gauzak horrela, nekez izan daitezke gobernu aurrerakoi baten buru», esan zuen Allik.



JOXE LACALLE

Juan Cruz Alli, Victor Maeztu, Jose Andres Burguete, Rafael Gurrea eta Miguel Sanz, atzo Iruñean eginiko bileran.

Sanz: «PSNri ematen diogu lehentasuna»

UPNk lehentasuna PSNri ematen diola berretsi zuen atzoko bileraren ondoko agerraldian Miguel Sanzek. Halaber, CDNk Parlamentuan duen indar urria nabarmendu zuen: «CDNko ordezkariek badakite hiru parlamentario besterik ez dutela eta PSNri ematen diogula lehentasuna». Halaber, CDNk erakutsi jarrera irekia derrigorrezkoa zela gaineratu zuen: «Hauteskunde kanpainan esan dutena esan eta gero, ez dute beste irtenbiderik». Nolanahi ere, bat egin zuen Allik egonkortasunaren inguruan esandakoekin. «PSNk akordioa hautsiko balu, UPNren eta CDNren artean lor daitezkeen 25 parlamentarioek gobernabidea bermatuko lukete».

Miguel Sanz: «PSNri ez diogu akordio garestiegirik onartuko»

CDN-KO buruekin bilera izan ondoko agerraldian, Miguel Sanzek abisua eman zien sozialistei: «PSNri akordioa balioa duena baino garestixeago ordaintzeko prest gaude, baina ez gehiegi». Haren aburuz, «sozialistek argi ikusi behar dute zer eska dezaketen eta zer ez». Sanzek, halaber, iragarri zuen UPNko Kontseilu Politikoak hilaren 26an aztertuko dituela PSNrekin akordioak lotzeko aukerak. Horren aurretik, astelehenean UPNko Batzorde Eragileak gai bera aztertzeko bilera eginen du. Sanzen arabera, hilaren 26rako prest izanen da PSNrekin akordioa lotzeko proposamen zehatzaren zirriborroa.

Bestalde, buru erregionalistak esan zuen aurrerantzean ez dituztela jakinaraziko UPNko eta PSNko buruek akordioa lotzeko eginen dituzten bileren edukia. «Jakina, akordioa lortzen dugularik, eman beharreko azalpen guztiak emanen ditugu, gardentasun osoz, baina ordu arte lan serioa egin nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa da egunero lotu dugunaren eta ez dugunaren inguruan azalpenik eman beharrik ez izatea». Azkenik, ontzat jo zuen UGT sindikatua UPN-PSN akordioaren alde azaltzea. «Nik banekien zein zen haien jarrera, baina ona da jendeak hori jakitea», esan zuen.